

FAMILIA ETA GIZA GARAPENA

Fernando Olabarrieta Artetxe (koord.)
Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 2001

Familia eta Giza Garapena (UEU, 2001, 554 orrialde) izenburuaz plaza-ratu den *Familia y Desarrollo Humano* liburuaren euskarazko bertsioaren koordinatzailea Fernando Olabarrieta (Lezama, 1957) Psikologiako Irakaslea izan da.

1985. urteaz geroztik Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da Fernando Olabarrieta. Bere jakintza-arloa Garapenaren Psikologian kokatzen da. Gaur egun, *Familiaren Psikologia* eta *Ezagutzaren Garapena* ikasgaien irakasle bada ere, *Giza Garapenaren Ereduak* ikasgaiaren irakaslea ere izan da urte askotan. Nortasun Kulturala eta Familia dira berak ikertzen dituen gaiak, eta horien inguruko hainbat ikerketa-proiektutan, artikulutan eta liburutan hartu du parte. Aipagai dugun liburuan, *Neba-arreben arteko harremanak* izeneko azpiatalaren egilea da, Enrique Arranz irakasle eta lankidearekin batera.

Liburu mamitsu honen gai nagusia edozein pertsonaren garapen psikologikoan hain garrantzitsua den erakunde bat da. Hain zuzen ere, familia, psikologiaren eta giza garapenaren ikuspuntutik aztertuta.

María José Rodrigo eta Jesús Palacios irakasle aski ezagunak izan dira, *Familia y Desarrollo Humano* (Alianza Editorial, 1999) gaztelaniazko liburuaren koordinatzaileak. Eurek Familiaren Psikologiaren esparruan duten jakintza goren mailakoa da. Koordinatzaileen lanaz gain, azpimarragarria da liburu honi Espainiako beste zenbait unibertsitate-irakaslek egindako ekarpena.

Horixe izan da, hain zuzen ere, liburu hau euskaratzeko arrazoi nagusietako bat, baina ez bakarra. Besteak beste, gaiaren inguruan gaztelaniaz idatzi den lehenengo eskuliburu edota unibertsitate-testua izatea (eta oraingoz bakarra), eta estatuko zein nazioarteko ikerlan garrantzitsuenetan oinarritua izanik, iturriei dagokienez oso eguneratua egotea ere kontuan hartzekoak dira.

Irakurleak mota askotakoak izan daitezke. Batetik, besteak beste psikologia, pedagogia, psikopedagogia edo gizarte-hezkuntza euskaraz ikasten ari diren ikasleak. Bestetik, familiaren alorrean lanean diharduten profesionalak (psikologoak, pedagogoak, medikuak, erizainak, irakasleak...). Azkenik, seme-alaben heziketan sakondu nahi duten guraso prestuak.

Familia eta Giza Garapena liburuari buruz egingo den iruzkinak bi zati izango ditu. Lehenengoan, testuan azaldu-tako atal nagusiak laburbilduko dira eta, bigarreanean, liburuari buruzko datu aipagarriak azpimarratuko dira. Gainera, itzulpengintzan eginiko lana ere bikaina izan dela esan behar dugu.

Liburuan azaldu-tako edukiak ondo egituratuta eta antolatuta azaltzen dira. Bost atal handitan sailkatu dira. Aldi berean, atal nagusi bakoitza azpiatalez osatuta dago. Lehenengoa, *Familia: gunea eta ingurunea*; bigarrena, *Familia: helduak garatzeko ingurunea*; hirugarrena, *Familia: Seme-alabak garatzeko ingurunea*; laugarrena, *Bestelako familia-egoerak eta arriskudun*

familiak; eta azkena, Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten familiak eta familia-aholkularitza.

Edukiei dagokienez, aipatutako bost atal nagusietan bi talde beha daitezke. Batetik, lehenengo hiru atalek familiaren eta giza garapenaren alde teoriakoak jorratzen dituzte, eta bestetik, azken bi kapituluek alde praktikoa eta aplikatuak.

Ondoren, aipatutako bost atalez sakonkiago arituko gara. Lehenengoan, alde batetik, garapena eta heziketa aintzat hartuta, familia nola aztertuko den azaltzen da. Bestalde, estatuan dauden familia-mota ezberdinen nondik norakoak zehazten dira, eta familia horiek Europako beste lurralde batzuetako familiekin alderatzen dira.

Bigarrenean, berriz, lehentasuna duten gaiak aukeratu dira, familiak helduen garapenean duen eragina aztertzen baita. Besteak beste, helduaroan familiaren baitan dauden harremanak, loturak eta atxikimenduak nola bilakatzen diren, gurasoek seme-alaben garapenean duten eragina, etab.

Familia Psikologiaren alorrean lanean dihardutenek bigarren atal honetan azaltzen diren edukien garrantzia azpimarratzen dute, planteamendu berriztatzailea adierazten dutelako. Hain zuzen ere, ikuspegi moderno honen arabera, familia adin guztietako gizakiak garatzeko ingurune garrantzitsua litzateke. Horrela, orain arteko pentsamoldeak ez bezala, haur eta gazteez gain, pertsona helduek ere familiako kide garrantzitsuak izaten jarraitzen dute familiaren garapen-prozesuan. Beraz, helduek familiaren garapen-prozesuaren baitan murgilduta jarraitzen dutela azpimarratzen du planteamendu berri honek.

Hirugarrenean, haurren garapen-prozesuan eragina duten familia-harremanak aztertzen dira. Hain zuzen ere, gurasoen eta seme-alaben artekoak eta neba-arreben artekoak. Era berean, haurrek familia nola irudikatzen duten aztertzen da, beren gaitasun sozioafektiboak eta familia-ingurunea aintzat hartuta.

Laugarrenean, kontuan hartzen da gaur egun gure testuinguruan mota askotako familiak daudela, eta horrek ere baduela eragina horien baitan gertatzen diren prozesuetan. Horren ildotik, atal honetan bi gai lantzen dira. Alde batetik, familia-testuinguru ez-kontentzionalak eta hauen baitan gertatzen diren prozesuak aztertzen dira; horrekin batera familia horietan gertatzeak duen eragina ere hizpide da. Bestetik, familia-mota guztien baitan gerta daitezkeen arazoak aztertzen dira: dibortzioak, tratu txarrak eta droga-mendekotasunak.

Azkenik, bosgarrenean, bestelako garabideak dituzten haurrak aztertzen dira. Besteak beste, garapen aurreratu edo atzeratuak duten haurrak, gorak eta itsuak.

Liburuaren bosgarren zati honen azken azpiatalean, (hau da: *Esku-hartze psikopedagogikoa familiaren baitan* izeneko hogeita laugarren azpiatalean) familia-mota guztietan erabil daitezkeen esku-hartze psikopedagogikoei buruzko informazio baliagarri eta praktikoa aurki daiteke.

Gainera, azaldu ditugun bost atal nagusiez gain, bibliografia zabala eta gaurkotua, autoreen izenen aurkibidea eta liburuaren edukien irakurketa errazten duten zenbait taula, koadro eta irudi aurki daitezke.

Sarreran aipatu bezala, itzulpen-gintzan egindako lan nekeza goraiatu behar da. Itzultzaileek, psikologian adituak ez izan arren, egindako ahaleginari esker, euskaldunontzat antzeko liburu teknikoen itzulpenetan askotan lortzen ez dena lortu dute: liburuaren irakurketa erraza eta atsegina, hain zuzen. Eredu honetan lanean dihardugunontzat, oso tresna egokia eta baliagarria da.

Proiektu honetan Udako Euskal Unibertsitateak eskainitako erraztasunak eta laguntzak ere azpimarragarriak dira.

Garapenaren ikuspuntutik, psikologiaren inguruan lan egiten dugunontzat, haurrak, gazteak eta helduak familia barruan nola garatzen diren argiago ikusteko euskaraz dagoen liburu bakarren koordinazio-lan handia Fernando Olabarrieta irakasleari zor diogu. Bere lan bikain hau unibertsitatean, euskararen normalkuntzan, beste aurrerapauso garrantzitsu bat izan da. Horregatik, bihotzez zoriontzeez gain, euskararen inguruan antzeko behar eta hutsuneak ditugunontzat, erronka ere badela aitortu beharra dago.

Aizarne Lizaso